



GOIZUETA

HISTORIA · ISTORIOAK · LURRA · JENDEA



GOIZUETA

Historia, istorioak, lurra, jendea...

Txiki ikusten da Goizueta munduko mapan, txiki goizuetarron historia eta istorioak planetako kontakizunean. Baina begirada apaldu eta arreta bertakoan jarritz gero, istorioz, gertakizunez, pasadizoz, bizipenez eta irudiz ederki jositako kontakizuna izanen dugu eskura, hurbilekoa, interesgarria batzuetan, bitxia hainbatetan, harrigarria askotan...

Jakin-min mutur bat izatea eta galdetzen hastea nahikoa da kontakizun horren jabe egiten hasteko. Galdetu aitona-amonei, galdetu gurasoei, auzoari, lagunari, herriko jakintsuari... edo galdetu liburuei, aldizkariari, artxiboei nahiz agiri zaharrei. Makina bat kontu agertuko zaizkizu, zure herria hobeki ezagutzen lagunduko dizutenak, bizi zaren herri hori, edo bertan bizi gabe ere estimatzen duzun hori hain zuzen ere.

Aldizkari honek ezinen du zure jakin-min osoa ase, ez dizu herriaz ikasi nahi duzun guztia ekarriko. Zipritin batzuk bai, ordea. Leiho txiki mordoxka bat irekiko ditugu aldizkari honetan, nahi duenak leiho txiki horietatik begira dezan eta, ikusiko duena gustuko izanez gero, ikusitako eta ikasitako horretan gehiago sakon dezan.

Atal ezberdinez osatutako aldizkaria duzu hau, jarraian irakurtzeko modukoa edo saltoka joateko gustuko duzun gaietatik barrena. Pasarteren bat erakargarri egiten bazaizu, beti izanen duzu han eta hemen dauden informazio-iturrietan —pertsonak, paperak eta sarea, gehienbat— sakontzen eta gehiago ikasten jarraitzeko.

Aldizkari hau osatzean Goizuetari buruzko hainbat jakingarri, laburrean, ekartzen saiatu gara. “Jakin beharko genituzkeen” hainbat kontu eman ditugu, nolabait esateko, herriari buruzko argazki panoramiko bat egiteko. Hemen jasotakoak osatzen du gure herria, nolabait, baina hau baino askoz gehiago ere badela badakigu, noski, eta hemen aipatu diren horietan ere askoz gehiago sakon daitekeela ere bai. Ziur gaude, hala ere, hona ekarritakoarekin denok ikasiko dugula zer edo zer, eta gehiago jakin nahia ere esnatuko dela gure barrenean. Hala izanen delakoan, hurrengo orrialdeetan duzun edukietan murgiltzera gonbidatzen eta animatzen zaitugu.

Aurkibidea

Historia	5
Lurra, Artikutza...	10
Ekonomia, lana, lanbideak	14
Euskara	20
Kultura, etnografia, etxeak, festak...	23
Kirola	30
Pertsonaiak eta herritarrak	32
Gehiago jakiteko	35

Nafarroako Kantabriar-floraren jatorria

Gure inguruko lurraldea duela 300 milioi urte sortutakoa dela diote. Garai hartan Pangea izeneko kontinente bakarra zegoen Ozeano bakarrarekin eta barruko itsaso bat zuena. Diotenez itsaso hartan hainbat irla zeuden, horietako irla bat gure herria eta eskualdea osatzen duen ingurua izan zitekeen: Baztan, Bortziriak, Malerreka, Leitza eta Goizueta. Gaur egun ezagutzen ditugun beste hainbat antlantiar irla bezalaxe (Kanariar Uharteak, Antillak, Bermudak, Madeira, Cabo Verde eta Azoreak)

Duela 150 milioi urte irla honetako landaredia oparoa zen, nagusiki zuhaitz-erako iratzea zegoen. Ordutik datoz gure mendi eta basoetan ditugun iratze mota batzuk.

Lehen biztanleak


Añoneko trikuharria, nahikoa ongi kontserbatu dena, k.a. 5000. urte inguruko trikuharria da. Indoeuroparren lehenengo inbasioarekin batera altxatua izan zen, gizakiak taldean lurperatzeko eraiki zuten. Añonetik gora Errekalekuko lepoa (660m) dago. Mairu-baratze multzo bat dago bertan, ikusgarriena Ugaratako gaineko mairu-baratzea, Euskal Herriko multzorik garrantzitsuenetakoa da, orain dela 2.600 urte eraikia adituen ustez. Mairu-baratzeak zirkulu forma duten espazioak dira, tamaina ezberdineko harrien bitartez markatuak, erretako gizakiaren errautsak gordetzen zituzten erdian. Inguru horretan estazio megalitiko asko daude: Aitasemegiko ibilbidean 33 monumentu megalitiko bisita daitezke eta Alkasoaldeakoan, berriz, 55 megalito. Ingurune aberatsa, beraz. Nahiz eta trikuharri eta tumulu gutxi batzuk izan, Goizuetako lurralde horietan ugariagoak dira mairu-baratzeak edo harrespilak. Gure lurretan gizakia gutxienez orain dela 6.000 urte bizi zela erakusten digute megalito horiek.

Ordenantzak Euskaraz

XIX. menderako Goizuetako Udalak bazituen ordenantzak euskaraz. 1825ekoa eta 1897koa ditugu horren adibide. Ordenantza luze samarrak ziren, hemen ezin dena jaso baina honako pasartea irakur daiteke, esaterako, 1897ko ordenantzako 8. puntuan: "Zortzigarrena. Carnabaletan permitituko da ebiltzea caleetan mozorroac careta edo mascaragin, baño careta edo máscara quendu biarco du avemari ezquilla jotcen dan becin pronto". Testu honen arabera XIX.mende amaierarako inauteriak ospatzen ziren Goizuetan. Norbaitek ordenantza hauek osorik irakurri nahi baditu, honako helbideetan ditu irakurgai:

1825eko ordenantza <http://klasikoak.armiarma.eus/testuak/testuak19011.htm>

1897ko ordenantza <http://klasikoak.armiarma.eus/testuak/testuak19043.htm>





Goizueta Anizlarrearen menpe zegoen hasiera batean

Anizlarrea lurraldeen lehenengo erreferentzi idatzia 1270ekoa da, Lopez Diaz de Haro III-ak (Bizkaiko jauntxoak) Anizlarreako lursail handiak Orreagako elizari eskaintzen dizkioneko dokumentuan: *"Lopez Diaz De Harok Orreagari eman dizkio Anizlarrea, Berako Oiana y Errenga mendietan dituen bazkaleku guztiak"*. Anizlarrea izena hartzen du Arano, Goizueta eta Artikutzak osatzen duten paraje osoak. Lursail honek nagusi bakarra du hasieran, Orreaga. Ondoren, Artikutza kanpo geratzen denean eta Goizueta nagusi denean Eliberria izena hartzen du inguru horrek.

1270. urtean Haroko Lopez Diazek bustaliza (saro) bat eman zion Orreagari Anizlarrean (Gipuzkoako muga). Hasierako emate horri, larretzeko eskubideari, XIV. mendean lurralde zabalak gehitzea lortu zuten Orreagako fraideek, jabetza garrantzitsua osatu arte. Modu horretan abeltzaintza-igarobidea hedatu zuen Orreagak Nafarroa-Gipuzkoako mugaraino, kostatik gertu, negurako babeslekuak zituena. Erdi Aroan saroiz irundutako pasabide hori Aezkoan hasten zen eta ia itsasoraino iristen zen neguko larreetan.

Goizueta. Herriaren izenaren lehendabiziko aipamen idatzia

1188an *Goizubieta* izena agertzen da lehendabizikoz, eta izendapen hau Anizlarrea baino zaharragoa omen da. Diotenez, Zubi-Handi zubiak ematen dio izena herriari. Urumea errekaen alde banatan dauden bi auzoak batzen ditu zubiak, eta etimologikoki izena honako elkarketatik datorrela diote: *goi + zubi + eta* (toki izena adierazten duen atzizkia), goiko zubiaren lekua esan nahian.

Garaiko beste dokumentu batek adierazten duen moduan, Goizueta Baionako diozesiaren menpe zegoen. 1189 inguruan Iruñako gotzainak dohaintzan eman zizkion Baionako gotzainari hainbat udalerrri: Goizueta, Labaien, Donostia eta Hernani, beste hainbatekin batera.

Gerrateak eta etxeak behin eta berriz suntsituak

Frantziako eta Gaztelako muga zegoen Goizueta, eta horren eraginez bi lurralde horietako erregeen arteko borroken ondorioak nozitu behar izan zituen. 1429an Agramondar eta Gaztelaren arteko gerraren erdian, gaztelauek Goizueta erre eta

suntsitu egin zuten. Sutearen ondoren, 1430ean, Juan II.erregeak Goizueta kuarteletatik libre utzi zuen 10 urterako. Goizueta erre zuten urte berean txikitu zuten gaztelauk Leitza ere eta 8 urte egon ziren gaztelaren menpe, 1437. urtera arte. Bakealdi baten ondoren, berriz piztu zen borroka eta orduan, gipuzkoarrek Goizueta, Lesaka, Leitza eta Areso birrindu zituzten. 1512ko uztailaren 10ean Gaztelako tropek Goizueta bereganatu zuten.

Herriko jauntxoen artean ere istilu asko izaten ziren Goizuetan. Inguru menditsua eta malkartsua izateak ere eragin handia izan zuen. Alde batetik toki estrategikoa eta zaindu beharrekoa zen, bestetik, gaizkile askorentzat babesleku izan zen inguru hau. Garai batean *“gaizkileen frontera”* ere deitu izan zitzaion.

Suteak

1555eko irailaren 29an San Migel egunez, Magdalena etxean zegoen ospitalea erre eta suntsitu zen. Ermita, ospitale gisa erabili zen eraikin berria egin bitartean. Bi hilabetera, azaroko egun batez, arratsaldeko 4etan, hego haizea zebilerarik, Urrutinea etxean sutea piztu zen. Beste 24 etxe ere osorik erre ziren eta 12 erdizka. Garai hartan 120 etxe zeuden, eta asko egurrezko eraikinak ziren. Orain ezagutzen ditugun etxe bikain asko sute honen ondoren eraikitakoak dira.

Goizuetako errepidea

Zailtasun handiak izan zituen, urtetan, Goizuetarako errepidea egiteak. 1557an Erreenteria eta Iruñea lotzeko bide bat eraikitzeko proiektua aurkeztu zen. Bide hau Goizuetatik barrena igarotzekoa zen, Nafarroako artilea Pasaiaiko Portura garraiatzeko asmoarekin. Baina ez zuten proposamena onartu. 1598an beste ahalegin bat izan zen Donostia eta Hernaniren aldetik, Tolosak, ordea, eragozpenak jarri zituen. 1858an Nafarroako arkitekto batek Goizuetatik Usategietarako bidea trazatu zuen. Alduntzingo jauregiko jauntxoek eragin handia izan zuten behingoz errepidea egiterako garaian, Gipuzkoa eta Nafarroako agintariekin zituzten harremanei esker bi herrialdeen arteko errepidea egiteko baimena lortu zuten. 1870erako ikerketak eta diseinuak eginak ziren, eta hortik aurrera errepidea eraikitzen hasi ziren: Hernanitik Ereñozu artekoa 1880-1882an eraiki zuten, Ereñozutik Nafarroako mugara 1883 eta 1884 artean. 1885erako Gipuzkoa aldeko errepide zatia bukatuta zegoen. Segidan osatu zuten Goizuetarainokoa ere, horrela jasoa dago 1896ko *Euskal-Erria Revista Bascongada* aldizkariko artikulua batean, Pedro M. Soraluzek idatzita Goizuetako errepideari erreferentzia eginez : *“carretera construida hace unos pocos años...”*





Hurrengo aipamena 1909. urtekoa da, abuztuaren 14ko ABC egunkarian argitaratu zutenez Maria Cristina eta Victoria Eugenia, Espainiako erreginak, Goizuetara iritsi ziren. Gerora eraiki zen Goizuetatik Leitza aldeko errepidea, 1915-1916 urteen bueltan.

Basaburua Txikia

Garai batean Basaburua Txikia izeneko eskualde edo bailara historiko bat egon zen, administratiboki ezagutua. 1757an Goizueta Basaburua Txikia izeneko bailara historiko horren parte izaten hasi zen. Goizuetaz gainera inguruko beste herri batzuk ere biltzen zituen: hasieran Ezkurra, Labaien, Saldias eta Eratsunek osatzen zuten, gero Goizueta, Arano, Areso eta Leitza elkartuko zitzaizkien, 1757an.

Biztanleen gora beherak

Denok dakigun bezala pixkanaka behera doa herritar kopurua, baina hau ez da beti horrela izan, hurrengo datu hauetan ikus dezakegu nolako gorabeherak izan dituen gure herriak:

Urtea	1842	1877	1900	1920	1950	1960	1970	1981	1991	2001	2011	2014
Biztanleak	1015	998	1104	1400	1312	1416	1423	1186	1034	886	759	747
Etxebizitzak	199	211	206	255	281	253	265	265	257	294	325	???



Merkataritza

Goizuetak, sasoirik oparoenean ia 1.500 biztanle inguru izan zituen. Biztanle horiei zerbitzua eskaintzeko adina denda eta zerbitzu bazen orduan herrian, merkataritza sendoa osatuz. Garai batean Goizuetak izan zituen honako dendak: Aroztegia, zerrategia, zurgindegia, saski-denda, altzari denda, ferreteria, jostundegia (arropa zein poltsak egiten zituzten), zinema, etxetresna elektrikoaren denda, izozkigilea, okindegi-pasteleria, txurreria, txokolategia, sifoi eta gaseosa fabrika, arrandegia, arropa eta zapata-dendak, arma-denda, gasolina bidoietan ere saltzen zen dendetan. Herriak, garai batean izan

zuen bizi-martxaren erakusle dira horiek denak.

Anizlarrea eta Orreagako kolegiata

Bertan kokatuta dagoen auzoaren izena hartu duen barrutiaren lehen erreferentziak XIII. mendekoak dira. Garai hartan, *Anizlarrea* deituriko lursailaren parte zen Artikutza. Eremu hori dohaintza, truke eta erosketen bitartez Orreagako Santa Maria Kolegiataren mende zegoen, eta XIX. mendera arte horrela iraun zuen.

Kolegiatak, hango burdinolak, ikazkintzarako eskumenak, meatzeak, basoak eta larreak berak zuzenean ustiatu edo errentan ematen zituen, eta oraindik ere ikus daitezke Artikutzan, han-hemenka, Anizlarrea eta sarioiak (tamaina handiko azienda -behiak, idiak,...- bazkatzeko erabiltzen ziren lursailak) zedarritzen zituzten mugarriak, Orreagako zigilua zizelkaturik daramatenak. Urteak aurrera joan ahala, Goizuetak *Anizlarrearen* gainean zituen eskumenak handituz joan ziren, baina Kolegiataren eta Goizuetaren nahiz beste errentari partikular batzuen arteko desadostasunak eta auziak etengabekoak ziren, batzuen eta besteen interesek ez baitzuten bat egiten. Hala, 1815ean, Orreagak eta Goizuetak adiskidetasuna sinatu zuten, eta Anizlarrea bi zatitan banatu zen: Anizlarrea berriaren 5.477 ha Goizuetarentzat, eta Orreagako gobernuarentzat Anizlarrea zaharraren 3.770 ha, gaur egungo Artikutza dena. Goizuetak eta jabe partikularrek ez zuten inongo eskumenik azkena esan dugun eremu horretan. Banaketa horren lekuko dira *Anizlarrearen* banaketa, eta Artikutza eta Goizuetako muga markatzen duten 37 mugarriak.

Artikutza desjabetu egin zuten...

XIX. mendearen hasieran izan ziren gobernu liberalek elizaren eta ordena erlijiosoen ondasunak desamortizatzeko prozesua bultzatu zuten. Prozesu honetatik kanpo geratzea lortu zuen, ordea, Orreagak, Kolegiata eta ospitale izaera zuelako eta Maria Cristina erreginaordeak ere gestio batzuk egin zituelako. Erreginaordea kendu eta Espartero agintera igo zenean, Orreagako jabetzak ere desjabetu eta enkantean atera ziren.

...eta esku pribatuetara igaro zen

Fagoaga eta Carriquiri izan ziren Artikutzako lehen jabeak, 1844an. Haien enkantean lortu zuten barrutia. Jabez aldatuz joan zen, 1896an Loubiereren eta Cintoren eskuetara pasa zen. Elamako meatze gunea Erretereriako geltokiarekin lotu zuen ferrokarrila eraikitzen hasi ziren jabe berriak. Aldamako kondeak jarraitu zuen ferrokarrilaren ustiapenarekin, eta ondoren Rafael Picaveari saldu zitzaion barrutia. Hark, beste elkarte batzuen artean, "*Compañía explotadora de Artikutza S.A.*" sortu zuen Acillonako markesarekin batera, eta hura izan zen, Acillonako markesa, Artikutzaren hurrengo jabea. 1919ko Abenduaren 24an, Donostiako Udalak Acillonako markesaren oinordekoei erosi zien Artikutza 3.200.000 pezetan (19.233 € inguru).





LURRA ARTIKUTZA

...



Azalerak, distantziak eta mugak

Goizueta Nafarroako ipar-mendebaldean dago, 91,4 km²-ko azalera du eta horietatik 37 km² Artikutzak ditu. Goizuetako herrigunea 155 metroko altueran dago. Leitza (HM), Berastegi (HM), Elduaien (HM), Arano (M), Erreterria (I), Oiartzun (IM), Lesaka (IE), Arantza (E), Zubieta (H), Labaien (H), Eratsun (H) eta Ezkurra (H) dira Goizuetarekin muga egiten duten herriak. Goizuetatik hiriburuetarako distantziak honakoak dira: Donostiara: 32 kilometro eta Iruñera 69 kilometro. Mendi inguruaz eta herriguneaz gain Goizuetak 6 auzo ditu: Alkainzuriain, Alkasoaldea, Berazkun (Espidealdea), Aitasemegi, Tartazu eta Artikutza.

Goizuetako lurraldea

Inguru menditsua da Goizuetako lurraldea. Mendi altuenak Arainburu (1.055m), Mandoegi (1.047m) eta Loizate (1.038m) dira. Arainburu 3 muga dituen mendi kaskoa da, Goizueta, Arantza eta Zubieta batzen dira bertan. Zenbait mendilerro ere ageri dira: Arainburu-Loizate-Illarbieta lerroa mendebalde-ekialdean; Urepel-Mandoegi lerroa, iparralde-hegoaldean edo Elutsa-Pagolleta-Izu, hegoaldetik-iparraldera.

Goizuetako errekei dagokienez, Urumea ibaia da ibairik garrantzitsuenak. Biuretan jaiotzen da, Bederan eta Zumarresta errekek biltzen diren lekuan. 40 kilometroko luzera du eta Donostian itsasoratzen da. Urumeak, Añarbe erreka hartzen du garrantzitsuenetakoa bezala eta bere ibilbideak Gipuzkoa eta Nafarroako muga bereizten du. Bere adarrek Elama eta Artikutza erreketara eramaten gaitu. Azken honek, Artikutzako urtegitik hartzen du, Enobieta errekan. Urumeak ere baditu adartxo txiki mordoska: Isillas (Arano eta Goizueta arteko mugan), Alduntzin, Urdiñola (Leitza-Goizuetako mugan), Easporro, Porrosta eta Arraoko erreka. Horietan amuarrainak, ezkailuak eta aingirak bizi dira. Aipatzekoa da erreka horiek oso garbiak direla eta fauna aldetik interes handiko espezieak eskaintzen dituztela, esaterako Martin arrantzalea eta ur-zozoa.

Goizueta eta Leitza arteko muga

Aspaldiko kontakizun batek dioenez, bi herrien arteko muga non finkatu behar zen erabakitzeko, bi herrietatik emakume bana bidaltzea erabaki zuten, eta topo eginen zuten toki hartan ezarriko zen muga. Leitzarra agudo aski abiatu zen, baina goizuetarra, nonbait, bere burua apaintzen hasi eta denbora dezente eman zuen horretan. Elkartu zirenerako leitzarra ia-ia Goizuetako kaskoan zen, eta horregatik ailegatzen omen da Leitzako lurra Goizuetako herrigunetik kilometro bat ingurura.

Basoak

Baso garrantzitsuenak Artikutza eta Mandoegi parajeak dira, baina Kosingo borda eta Akiñola inguruak ere aipatzekoak dira. Oihanak betetzen duen azalera 7.000 hektarea ingurukoa da, horietatik 4.500 hektarea hosto zabalak dira (pagoa, haritza, gaztaina) eta gainerakoa pinudiak dira (alertze eta pinu gorria) eta basoberritze landaketak. Erreka inguruetan altzadiak eta lizarrak daude. 1868an mintegiei buruz egindako azterketa batean jasoa dagoenez Goizuetan 4 mintegi eta 61.000 landare zeuden, datu esanguratsu hauek herri ikazkina izanaren erakusle dira.

Garai batean gehiena insignis pinudia bazen ere, gaur egun horren lekua basoberritze landaketek betetzen dute, espezie desberdin ugariarekin (Kriptomeria, sekuoia, zedroa, alertzea, Douglas izeia...) produktibotasun aldetik eta bertako espezieak babesgarri bezala (haritza, lizarra, gaztaina, astigarra). Bitxikeria modura, Sarobe parajea oin 55 urte, atzeritik ekarritako 40 sekuoi inguru aldatu ziren (denak Sequoiak izan arren, haren klon desberdinak dira) eta bertan segitzen dute haziera esanguratsuekin. Insignis pinua Goizuetako diru iturri garrantzitsua izan da (9.000 m³/urteko). Gaur egun gehienak atere ondoren, haritz amerikarrak eta alertze japoniarrak gelditzen dira garai hartan aldatutako espezieetatik. Hortik aparte, gaur egun espezie desberdinak aldatzen dira, lehen esan bezela: Zedroa, alertzea, kriptomeria, akazia, astigarraga....

Artikutza

Artikutza, Anizlarrea izan zen parte batean dago. Artikutzako lurraldeak 3.700 hektareako azalera du eta bere perimetroa 30 kilometrotakoa da. Paraje honetako mendirik altuena Arainburu da 1.055m eta bajuena Berdabio 250m. Lurralde oso euritsua da, batez beste 2.700 mm ingurukoa (Iberiar Penintsulako euritsuena) eta atlantiar klima duen ingurua da, oso hezea eta epela. Pagadiak (%30) azaleraren zatirik handiena estaltzen du, 1.100 hektarea. Ondoren haritzia azaltzen da (%21), 800 hektarea inguru, eta ondoren gaztainak, altzadiak, pinu landaketak eta larreak azaltzen dira.

Urtegiak 20 hektarea inguru hartzen ditu eta 1.500.000 m³ko edukiera du, bere paretak 44m neurtzen ditu. 1950ean hasi ziren eraikitzen eta 1960an inauguratu zen. Garai hartan Donostia inguruko herrietara ura eramateko erabiltzen zen, gaur egun, ez du funtziorik, erreka berak Añarbeko urtegira eramaten duelako. Bertako errekarik garrantzitsuenak Artikutza, Errollarri, Enobieta, Urdallu eta Elama dira.

2016ko otsailaren 3an Artikutza *"Kontserbazio Bereziko Leku"* izendatu zuen Nafarroako Gobernuak, bertan Nafarroako aniztasun biologikoaren adierazgarri diren bizileku natural, landaredi eta fauna daudela ulertuta. Elementu hauen kontserbazioa bermatzeko, Kudeaketa Plan bat eta jarraipena egiteko lantaldea sortu dira.





Fauna

Tamaina handiko ugaztunak bizi dira bai Artikutza inguruan baita Goizuetako mendi basoetan: katagorria, lepahoria, basakatua, basurdea eta orkatza esaterako. Anfibioak berriz, honakoak ikusi ditzakegu: arrabio arrunta, baso-igel gorria, uhandra palmatua edo apo-arrunta besteak beste. Narrastietan: eskulapioren sugea, suge berde-horia, musker berdea, horma-sugandilla edota sugegorria. Hegaztien artean: zapelatz arrunta, txepetxa, birigarroa, txinbo kaskabeltza, gabiraia, okilak etab. Ugaztun bereziena eta garrantzitsuen "muturluze piriniotarra" da, edo desmana. Satorren familiakoa da eta burualdean 2 zentimetroko tronpa du. Penintsularen iparraldeko mendigunean bizi da, Iberiar endemismoa da, alegia, animalia mota hau eremu geografiko jakin batean bakarrik hedatzen dela, mugatua dago zonalde partikular batera, hau da, barruti hauetatik kanpo ez dira aurkitzen. Animalia hau gautarra da eta erreken 100m eta 1000m bitarteko tartea hartzen dute bizitzeko.



Landaredia

Endemismo erregionala duten bi landaredi mota dira garrantzitsuenak Euskal Herrian: *Soldanella villosa* eta *Trichomanes speciosum* (iratze klase bat da). Tertiarioko erlikia gisa kontsideratuak dira. Goizuetan iratze mota hau badago. Endemismo erregionalekoa izateak esan nahi du, eskualde konkretu batean soilik bizi dena edo hazten dena, beste inon aurkitzen ez diren landareak direla.

Ehiza

"Basauntz" izena du ehiza eta arrantza elkartek, 200 bazkidetik 130 ingurura jaitsi da, ehiza gutxitu egin delako, besteak beste. Goizuetan ehizatzen diren espezieak birigarroa, usoa, oilagorra, basurdea, azeria eta orkatza dira. Hegaztiak ehizatzeo 60 lurreko postuak daude, ta horiek egutegi batean zehaztuak daude eta aldiko hiru ehiztariz eta txandatz pasatzen dira. Oilagorretan ordea, ehiztariak beren zakurrekin ibiltzen dira barruti guztian barrena. Basurde ehizan aritzen diren hiru koadrila daude eta talde bakoitza bere ingurune jakinean ibiltzen da. Hegaztien kasuan aipatzekoa da orain urte batzuk baino askoz gutxiago ehizatzen dela, usoaren ibilbidea aldatzen ari delako. Ez da ordea basurde, orkatz eta azeri ehizarekin horrelakorik gertatzen.



Klima

Urtaro lehorrik gabeko klima epel eta hezea du, hau da atlantiar epela deitzen dena.

Urteko batez besteko prezipitazioa 2.000 mm-takoa da eta normalean uda aldera euri asko botatzen ez badu ere, ez da urte osoan zehar ur faltarik izaten. Termikoki klima ozeaniko tipikoa du, batez besteko tenperatura altuena uztaile eta abuztuan izaten da (19°C) eta baxuena ilbeltza inguruan (7°C)





Burdinolak

Garai batean 4 burdinola izan zituen herriak: Alduntzingoa, Zibolakoa, Olaberrikoa eta Artzangoa. Artikutzan ere baziren beste 4 burdinola: Urdallukoa, Elamakoa, Artikutzakoa eta Goizaringoa.

ELAMAKOA: Elama erreka izena ematen zion burdinola dugu hau, Goizaringo burdinolaren ondoan zegoen eta kiskaltze labeak zeuden. Dirudienez, trena bertatik ateratzen zen, izan ere, errail bat ageri da gaur egun bi burdinolak elkartzen dituen pistan. Elamako burdinola honetan erabiltzen zuten minerala Bizkaitik ekartzen zuten. 1860an 6 hilabetez bakarrik aritu ziren lanean burdinola honetan, eta beste urte erdiz ezin izan zuten lanik egin ur eskasiagatik. 6 hilabeteko epe hartan 11 langile aritu ziren lanean. Haritz, pago eta gaztainondoetatik lortutako egur-ikatz erabiltzen zuten erregai gisa. Aipatutako denboraldi horretan 590 kintal burdin eman zuen Elamako burdinolak. Kintala garai bateko pisua zen, kintal metriko bat gaur egungo 100 kg zen, beraz 59.000 kilo burdin atera zituzten Elamatik 6 hilabetetan.

Artikutzako burdinolak XIV. mendetik dokumentatuta daude. Lau burdinolak hidraulikoak ziren eta Orreagako Kolegiataren agindupean zeuden. Burdinolan 4-5 langile aritzen ziren eta baita gremio askotako langileak ere: karobigintza, ikazkinak eta eraikuntzako materialak eginez, adreiluak eta teilak. Garai hauetako aztarnak oraindik era ageri dira. Aipamen berezia merezi du minerala garraiatzeko eraiki zuten bide estuko trenbideak. 1898-1918ra Elamatik Oreretarako bidea egin ohi zuen.

Txondor plazak ere ugari izan ziren Goizuetan, horietan ikatza egiten zen burdinolak lanean mantentzeko (tona 1 burni lortzeko, ikatza hiru aldiz gehiago behar zen eta ikatz hau lortzeko, egurra bi aldiz gehiago).

Goizueta senidetuta dago Antzin herriarekin. 2012ko maiatzaren 26an sinatu zen senidetzeko akordioa Antzingo Txondorraren III. egunean. Garai batean bi herriek ikazkintzarekin izan zuten harremana dela eta sinatu zen akordioa.

Kisulabeak

Kisulabe gehienak 1850 urte inguruan eraikitakoak ziren eta gosete gogor baten ondorioz etorri zen haien sorrera. Kisuarekin lurra berotu egiten zela eta artoa ereiteko ona zela oharitu ziren garaiko biztanleak. Nonbait, kare harriak botatzen zituzten kisulabera eta otea eta larreekin estali eta gero, pago eta haritz egurrekin sua piztu eta egunetan egosten eduki ondoren, kisua ateratzen zuten. Hainbat erabilera eman zitzaizkion kisuari: baratza eta alorretan ongarri bezala, arbolak zuritu eta zomorroak uxatzeko insektizida moduan, eraikuntzarako mortero moduan, etxeak desinfektatzeko, botika moduan abereen zauriak sendatzeko eta beste erabilera batzuetarako izaten

omen zen kisua. 7 kislabe behintzat, baziren Goizuetan: Porrostakoa, San Antongoa, Errekaldekoa, Gaztaozkoa, Izotzolakoa, Deskargakoa eta Askatako kislabea.

Meategiak

Hainbat meatoki izan da Goizuetan, bertako mendiek izan duten aberastasunaz baliatuz. Erdi Arotik hasita burdinarenak izan dira emankorrenak, horregatik izan dira hain ezagunak burdinolak XIX. mendera arte. Baina burdinaz gain bestelako mineralak eta metalak atera izan dira, kaolina, toska, blenda, kobrea, beruna edo pirita esaterako. 1840 eta 1944 bitartean 342 espediente jaso zituen Nafarroako Gobernuak, Goizuetan minerala erauzteko eskaera eginez. Indar handia izan zuen, batez ere Ollingo meategiak, langile asko etorri zelako bertara lanera. 18 familia eta 200 pertsona bizi ziren garai horretan. Ollingoarekin batera Elamakoa ere aipatzekoa da, bietan meatzari asko aritu baitzen lanean, eta denbora gutxian biztanle kopurua asko hazi zen. 1909. urtean Guardia Zibilen lau-bost laguneko postu bat jartzeko eskatu zuten herrian, biztanle asko izateak eguneroko bizimoduan eragin zuelako, modu batean. Ollingo meategiak 1970eko hamarkada inguruan amaitu zuen lan-jarduera. Hain zuzen ere, 1979ko maiatzaren 19an erabaki zuen udalak barrakoiak, etxebizitzak eta pabilioiak enkante publikoan saltzea, meategien ustiapena bertan behera geratu zelako.

Baserriak

Gure herria baserri polit eta ederrez inguratuta dago, gaur egun hutsik daude asko edo, tamalez, eroriak ere badaude. Dena den, Goizuetan, Leitza eta Aranón bezalaxe, baserri ugari dago eta herriko bizitzaren zati garrantzitsua izan dira. Don Bixente Hernandorenak, Goizuetako apaiza izandutakoak, 1978. urtean egindako liburuxkan, *"Goizuetako etxe eta baserrien izenak: 1616tik 1925'ño"* izenekoan, datu esanguratsu hauek bildu zituen:

- 1600. urtetik 1700era 6 baserri bakarrak azaltzen dira (ez du esan nahi gehiago ez zegonik): *Capero, Chacurcho, Antocarena, Benayo, Erasna eta Gaztea Lopezena*.
- 1700dik 1800era, 78 baserri.
- 1800dik 1900era, 108 baserri.
- 1900dik 2000ra, 121 baserri.

Gaur egun baserriak eta herritik kanpo egin diren etxe berriak 100 inguru ditugu.





Errotak

Hiru errota izan ditu Goizuetako herriak, XVIII. mendekoak Goiko-errota (Olaberria) eta Beheko-errota (Errota zaharra) eta Errateta XX. mendekoa. Artikutzako auzoan, Elaman (XV- XIX mendeetan) beste errota bat ere izan zen. Gerra ondoren Gipuzkoako errotak prezintatu egin zituzten eta gauez Goizuetara etortzen ziren astoa artoz kargatu eta arto-irin bila. Bidean harrapatuz gero arto-irina kendu egiten zieten, deus gabe utziz. Neurri desberdinak erabiltzen zituzten pisatzeko, errua (21kilo), erru-erdia (10kilo), eta laka, errotara artoa txikitzea eramaten zuenak %10a utziaz ordaintzen zuena. Olaberriko estadistikako dauetan honela jartzen du:

Urteko produkzioa: 1954an = 80.000Kg.
1957an = 87.000Kg.
1960an = 58.000Kg.
1962an = 30.315Kg.
1970ean = 8.000Kg. Hauxe da azken datua.

Erratetako errota dugu ezagutu dugun azkena, 1993 inguruan itxi baitzen.

Eliza eta ermitak

JASOKUNDEAREN ELIZA:

Goizuetako eliza (1561-1725) gotiko errenazentista erakoa da, gurutze itxurakoa. Erretaula nagusia (1762) rokoko erakoa da, Santa Maria Zeruratuaren irudia dago erdian. Alboetan, Pietatearen (XVI), Errosarioko Amabirjinaren (XVII) eta Mikel Deunaren (XVIII) aldaretxoak daude. Aipatzekoak dira: bataiarria (XVI. mendekoa), bi pisutako egurrezko koroa eta 1826an Iruñetik ekarritako organoa, gero 1935ean Amezuak berritu zuena.

SAN ANTON ERMITA:

Goizuetako herritik 10 minutura dago, Hernani aldera. San Anton egunean, urtarilak 17an eta San Blas egunean, otsailak 3an, mezak ospatzen dira bertan.

MAGDALENA ERMITA:

Goizuetako herriko sarreran dago (Hernani aldetik). Ermitako erretaula XVIII. mendekoa da eta Kristo gurutzatuaren irudi gotiko ederra, XV. mendekoa. Duela 450 urtez geroztik Magdalenako ospitalaren eta baselizaren inguruko kontakizun franko dago jasoa. XVI. mendeko eraikin hau baserria eta erromesen eta gaixoen ospitala izan zen. Ermita osoa, lau paretak izan ezik, 2011n berritu zen.

SAN AGUSTIN ERMITA:

Baseliza hau Artikutza auzoan dago, Donostiako udalaren jabetza da. 1678 inguruan San Agustinen omenez ermita bat eraiki zen, gaur egun frontoia dagoen atzekaldean. Ezkerreko paretan kanpaiaren leihatila ikus daiteke. Oraingo ermita 1928koa da, eta auzoko jaieguna denean, abuztuak 28an, meza ospatzen da bertan.

Hauetz gain, Santa Krutz baserria eta San Pedroko borda ere ermitak izan ziren garai batean.

Argindarra Goizuetan - Zentral elektrikoak

XX. mendera arte argia kandlek, lastargiek, beheko suak edo kinkeek ematen zuten. 1900. urtean garai berri bathasizen, 1904an argindarra iritsiz Goizuetara. Beheko-errotako presa eta Alduntzingo zentrala egin ziren, Donostiko Tranvia Compañiari argindarra bidaltzeko, eta bide batez herrirako. Inguruko zentralik zaharrena Arranbide 1 izenekoa zen, Arranbidetik mendian beste aldera dagoena da, Hispano Suiza papelerarentzako egina. XIX. mende bukaerarako bazen zentral hau eta ondoren Santiagoko zentrala ireki zuten. 1912 eta 1915 urteen artean sortu ziren ondorengo zentral gehientsuenak: Zumarresta (Biuretakoa), Arranbide 2 (oraindik martxan dagoena), Cementos Rezola zentrala, Leitza zentrala, edota ondoren sortu zen Añarbeko Zentrala.

Telefonoa 1896an iritsi zen herrira.

Labaderoa

Goizuetako labaderoa 1908an eraiki zen Zubimusu etxean. Goizuetako Udalak 4 urte lehenago erosi zion Zubimusu etxea Zibolako nagusiari, Bizconde del Cerro jaunari. Herritarrentzat arropa garbitzeko toki erosoak jartzeko asmoarekin, behean labaderoa eraiki zuten, 12 x 3 metroko aska jarritz. Goikoiturriko errekan presatxoak egin eta handik ekarri zuten ura burnizko tuberia baten bidez, Zubi-Handian barrena. 1980 urte aldera arte eman zuen zerbitzua labaderoak. Urte batzuk utzita egon ondoren, 2007an, auzolanari esker, berriro martxan jarri zen. Labadero hau handiena eta gehien erabili zena izan bazen ere, herrian baziren lehenagotik 2 labadero koskor, Goikoiturrin eta Zibolan, 1890ekoak dira. Zibolakoa 1947ko uholdeek oso-osorik eraman zuten. Goikoiturrikoa oraindik ikus daiteke.





Etxeetara ura

Osasun prebentzio neurriak ere garrantzi handia hartu zuen XIX. mende hasiera hartan. Kolera edo tifus gaitzak jota hiltzen zen jendea, maiz. Udalak osasuna eta garbitasuna hobetu nahian labaderoak egin zituen, batetik eta etxeak ur garbiz hornitu zituen bestetik. Honekin batera ur zikinak bideratzeko neurriak ere hartu zituen. Gorreneko minazuloko iturritik hartu eta ura ekarri zuen etxeetara 1896an. Ur zikinen isurbidea ere egin zuen 1915ean, Txumekatik hasi eta Errekaundiraino.



Korreoo zerbitzua

1850ean Korreoa Oiatzundik iristen zen Goizuetara. 1862. urte inguruan Korreoa Iruñetik Irunera izaten zen. Bidean Doneztebetik pasatzen zen eta Ezkurratik barrena iristen zen korreoa Goizuetara. 8 orduko bidea egiten zuen postariak oinez. Korreoo zerbitzua Gipuzkoatik bideratzeko eskaera egin zuen Goizuetako herriak, eta horrela, 1898an posta Hernanitik ekartzea erabaki zuen Correos zerbitzuak. Modu horretan korreoa lehen baino egun bat lehenago iristea lortu zuten.

Feriak

Goizuetako herriak 1869an Nafarroako Gobernadoreari eskari bat egin zion. Urtean zehar lau feria egiten ziren, San Anton, San Isidro, San Migel eta Santu guztien egunean. Garai hartan zortzi burdinolak itxi ziren eta aurrera egiteko modu bakarra abeltzaintza izanik, urtero hamabi feria ospatzeko baimena eskatu zuten Goizuetarrak. Feriak ospatzen ziren beste herrietara joatea ez zen errentagarria, bidean ordu asko eta maiz gaua ere etxetik kanpo pasatzen zutelako. Horrek gastua eragiten zuen. Onartu egin zuten eskaria, baina urteak aurrera, feriak pixkanaka indarra galdu zuen. Urria, azaroa eta abenduko azken larunbatetan ospatzetik batere ez egitera pasa zen zerri feria. 2004. urtean berreskuratu zen feria eguna. Goizuetako herritarrentzat esanahi oso berezia dauka egun honek, garai bateko ohitura eta tradizioak transmititzeko gai delako, besteak beste. Geroztik azaroko azken larunbatean ospatzen da urtero.



Betizuk

J.M. Barandiaranek esaten zuenez "behi izua" animalia mitikoa da euskaldunontzat. Txikia, ile gorrikoa eta Euskal Herriko mendietan beti libre ibili dena. Sekulan sotoan sartu gabea oraintsu arte. Paraje txarretan ibili izanak iraunarazi du betizu arraza, hala

ere, kanpo arrazek kutsatu dute, beraz, betizuak beti izan diren lekuetan nekez aurkitu daiteke ale garbirik.

Euskal Herriko betizuak Pirinioetan bizi ziren abelgorrien ondorengoak dira, gainera, morfologia aldetik historiaurreko uroen antza handia dute, azken uroa 1627an hil zen Polonian. Nafarroako betizuen erditsuak Goizuetako mendietan dabiltza, 500 buru gutxi gora-behera. Zezen bat, hiru betizu eta bi zekor erosi zituen Nafarroako Diputazioak Goizuetako Mertxene baserritik 1975ean, Agoitz inguruko hainbat menditan askatu zituzten, Euskal Herriko betizurik garbienak morfologikoki eta genetikoki, Mertxenetik eramantako haien ondorengoak dira.

Eskola

Goizuetan 1718-1729 urte bitartean bi lekutan ematen zitzairen eskola hurrei: Juan Domingo de Aldunzin jaunak Herriko Etxean ematen zuen eskola eta Josef Antonio de Zavaleta jaunak, bera bizi zen Martitxonea etxeko gela batean. 1724ko ilbeltzaren 23an Udalak, Martitxoneatik Kontzejura joateko agindua eman zuen, haurrak bertan baldintza hobean egonen zirelako. 1850. urtean 100 mutil joaten ziren eskolara. Nesken eskolara berriz 30 neska. 1904. urtean Udalak Zubimusu etxea erosi zuenean, neskentzat eskola eraiki zuen han, besteak beste. Fermin Apezetxeak irakaskuntzarako laguntza handia eman zuen. 1958an Azoka ondoan eskola berria eraiki zuten, maisuen etxea zena. Gerora, urte batzuz, udaletxearen lehen solairuan eskola ere eman zuten.

Andres Narbarte "Xalto" eskola

1983an Andres Narbarte "Xalto" ikastetxe publikoa inauguratu zen. 33 urteotan hainbat haur eta gazte eskolaratu da Xalton. Gaur egun Goizueta eta Aranoko 75 ikasle dabiltza eskolan, 20 Haur Hezkuntzan, 44 Lehen Hezkuntzan eta 11 Bigarren Hezkuntzan. 13 urte bete arteko eskaintza dago Xalton, DBH 3 eta hortik aurrerako ikasketak egitera Leitzara edo Hernanira atera behar dute Goizueta eta Aranoko neska-mutikoeak.





Euskalkien bihotzean Goizueta: bertako euskara

Euskarak hamaika molde desberdin dauzka, euskalkiak eta hizkerak, bakoitza bere tankera eta doinu propioarekin. Horien arteko bat da, hain zuzen ere, Goizuetako hizkera. Euskalkien sailkapen klasikoan, Bonaparte Printzeak egindakoan alegia, Goizuetakoa Gipuzkoako beste hizkera batzuekin lotuta agertzen zen: Oiartzungoa, Lezokoa... Azkeneko urteotan sailkapen hori berriro egin da —Koldo Zuazo ikertzaileak egindako lanari esker batez ere—, eta sailkapen berri horretan Goizuetako euskara nafarreraren barruan kokatuta gelditu da, ipar-sartaldeko aldaeran, erdialdeko euskalkiarekin zubi-hizkera gisa bada ere. Inguruko hizkerak, Aranokoa eta Leitzakoa esaterako, erdialdeko hizkeren artean gelditu dira, horiek ere bi euskalkien artean nolabaiteko zubi-lana eginez. Goizuetakoak, nonbait, kutsu nafar handiagoa dauka, Nafarroako hizkeren ezaugarri gehiago ditu, eta horrek nafarreraren kokatu du gure herriko hizkera.

Juan Jose Zubirik, Patziku Perurenak eta Oihana Lujanbiok sakon aztertu dute Goizuetako euskara, eta beren lanetan bertako euskararen ezaugarri asko jaso dituzte. Aipatzeko modukoa da, horien artean, Goizuetako euskararen azentua eta doinuera, berezia delako, deigarri egiten zaiolako bertakoa ez den belarri euskaldunari, eta zenbait ikertzailek euskararen azentu zaharrarekin lotu dutelako.

UEMA

UEMA (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea) Euskal Herriko 70 udalerrri baino gehiagok osatzen dute. Euskaldunen ehunekoa % 70etik gorakoa duten udalerrriak dira UEMAko guztiak, eta udalaren eta udalerrriaren eguneroko bizitza —publikoa nahiz pribatua— euskaraz normaltasun osoz egitea da haien guztien helburua. Baita euskararentzat lurgune propio eta lehentasunezko bat osatzea ere. Goizuetako Udala 1993. urtean sartu zen UEMAn. 2012. urtean Goizuetan ospatu zen Euskal Herriko UEMAko herri guztiak biltzen dituen UEMA Eguna, eta hauxe izan zen orduko leloa: “Euskaraz bizi eta ari, herri euskaldunak aitzindari”.

Goizueta, herri euskalduna

Nafarroako eta Euskal Herriko ingururik euskaldunenetako batean kokatuta dago Goizueta. Herriaren izena esan eta berehala euskararekin lotuko du edonork, izaera euskaldun horrek herria asko markatzen baitu. Biztanleen % 90etik gora euskaldunak dira Goizuetan, eta hutsik egin gabe belaunaldi guztiek euskara ikasten dute etxean eta eskolan. Herriko hizkuntza nagusia euskara da, eta horixe da etxeetan, kalean, udaletxean, eskolan, dendetan eta oro har herriko bizitza publikoan gehien entzuten dena, alde handiz. Erdarak ere badu sarbidea, jakina, bereziki hedabideen, kanpoko

administrazioaren eta "teknologia berriak" deitzen zaien horien bitartez, baina presio horren gainetik goizuetarrek sendo eutsi diote beren hizkuntza propioari, horixe da ahotik ateratzen zaien lehena, eta euskarak oso bizirik jarraitzen du bertan.

Toponimia

Biztanle gutxiko baina hedadura handiko herria da Goizueta. Lurralde zabal horretan mendi, hegi, lepo, baso, erreka, baserri eta paraje ugari daude, guztiak ere izena dutenak. Makina bat toki-izen daude, horrenbestez, Goizuetan, toponimia oso aberatseko herria da. Galduz joan dira horietako batzuk, erabileraren ondorioz, eta herritarren ahotan gorde dira eta erabiltzen dira beste asko, oraindik ere bizi-bizi. Toki-izen askok ingurua deskribatzen dute, edo, bestela, inguru edo toki horrekin lotura zuen pertsona, gertakizuna edo lanbidea gogoratzen dute: *Errekabeltz*, *Erdiko Ikatzulo*, *Telleria*, *Joakiñen borda*... Batzuek esanahi argia eta ulerterraza dute (*Larreaundi*, *Egiluxe*, *Zokoepel*...), beste batzuek ez hainbeste: *Arranbide*, esate baterako, zer ote da, *arrano* + *bide* edo *arrain* + *bide*? Eta bitxi askoak ere badira, noski: *Haizerik jotzen ez duen harria*, *Otzbero*, *Urbedeinkatuntzia*... Aberastasun handia dauka Goizuetak toki-izenetan. Paperak gorde ditu izen horietako asko, mingainak ere erabili beharko ditu bizirik gordeko baditugu.

Xapo aldizkaria

XAPO aldizkaria 2002. urtean sortu zuten Goizuetako Kultur Taldeak eta Goizuetako Udaleko euskara zerbitzuak. 28 orrialdeko euskara hutsezko aldizkaria da, eta euskara, kultura, Goizueta nahiz Goizuetako herrigintza lantzen ditu. Urtean behin argitaratzen da eta 2002-2016 urte bitartean, guztira, 15 zenbaki argitaratu ditu.


Etxeen izenak

Herri ikusgarria da Goizueta bisitariarentzat, besteak beste bertan dauden etxeengatik. Etxe eder askoak ikus daitezke, eta denek badute izana, baita izena ere. Eta izen horiek, normalean, etxearen edo etxearen jabeen berri ematen digute, etxearen edo bertako bizilagunen historia islatzen dute. Gutxienez XVI. mendetik hasita baditugu herriko etxeen inguruko gorabeheren berri, eta izenak ere ordutik agertzen hasten dira. Izen horietako batzuk galdu, eta beste batzuk asko aldatu dira erabileraren ondorioz. Adibidez: *Esquerrarenegua* (XIX. mendean) > *Ezkerran eguia* (1825) > *Esquernia* (XX. mendean) > *Exkerni*). Dokumentuetako izenak eta ahozko erabileraren ondorioz ez datoz beti bat, eta idatziz nahiz ahoz ere idatzeko nahiz esateko modu ezberdinak ikus daitezke. Patziku Perurenak, Juan Jose Zubirik eta Patxi Salaberrik Goizuetako etxeen izenak liburuan





diotenez, Goizuetako etheen izenak izaeraren arabera sailka daitezke, eta egileek honako multzo hauek proposatzen dituzte: etxea deskribatzen dutenak (*Bordatxuri, Olaberria, Goikoborda, Zubimusua, Labetxea* ...); antroponimoekin lotuta daudenak, besteak beste pertsona izenekin, deiturekin edo izengoitiek lotura dutenak (*Luisenea, Mikelarena, Zabaltenea, Oxe goarda, Martintxipiarena, Mitxelko, Argiñaenea*), eta zehaztugabeak: Alduntzin, Gorostin, Zibola... Bestalde, ez beti, baina etxearen izena askotan erabili da etxekoari edo etxekoei izengoitia jartzeko.



Zubi Handia - Biu(re)tako zubia

Zubi Handia oso lotuta dago Goizueta herriarekin, presentzia nabarmena du eta zubiarekin berarekin irudikatzen dute askok herria. Adituek Erdi Aroko zubiak deitzen diete eraikin mota hauei. Irudiari bakarrik ez, antza denez, izenari ere estuki lotua dago Goizueta. Badirudi Zubi Handiak ematen diola izena herriari, aurreko pasarte batean azaldu bezala.

Bestalde Biu(re)tako zubia ere esanguratsua izan da. Hari buruz jasotako dokumentazioaren arabera garaiko erreferentzia bihurtu zen ingeniaria eskolentzat eta hainbat aldizkaritan argitaratu zen zubiaren eraikitzea, hormigoï armatuaren erabileran kalkulu sistema iraultzailea erabili zelako. 1916an egin zen obra eta Alfonso Peña Boeuf izan zen proiektuaren ingeniaria. Francoren gobernuan Herri Lanetako ministroa izan zen gerora. *"Revista de Obras Públicas"* aldizkarian garai hartan argitaratu zenez, garrantzi handiko obra izan zen Biutako zubiarena. Ingeniari eredutzat hartu zen 1916an Goizuetako presa gainean eraikitako biaduktu edo zubi handi hau. Teknikoki esanez, parabola bikoitza duen arkuak eraiki zuten oinarri gisa, zubia eusteko eta zubi horretatik pasako zen kargari ongi eusteko. 42 metroko parabolak dira eta mota honetako bi arku ditu gainera. Zolarriaren euskarri gisa parabola-arkuak zituen lehenbiziko zubia izan zen Espainian.

Inauteriak – zahagi dantza

Artxiboetan aurkitutako inauteriei buruzko aipamenik zaharrena XIX. mende bukaerakoa da. Ordukoa da egun horietan herritarrek nola eta noiz moztarrotu zitezkeen arautzen duen Udal Ordenantza, euskarazko ordenantzak atalean azaldu bezala.

Zahagi dantzaren oinarriaz datu zehatzak falta diren arren teoria hedatuena zera da: karnabaletan herrira etorritako ikazkin bat irudikatzen du "zahagi" pertsonaiak. Bizkarrean izaten duen zahagia ardoz betetzen zuen, gero edari hori basora eramateko. Mozkortutakoan herritarrek, neskak batez ere, musukatu nahian laisterka hasten da haien atzetik. Azkenean herriko gazteek makilaz jotzen dute ikazkina, herritik alde egin dezan.

Zahagi dantzaren musikari dagokionez, Udal dokumentuetan oraindik ez da agertu bere aipamenik, baina Don Bixente Hernandorena apaizaren aztarnen arabera, herriko bandaren sortzailea zen Antonio Segura botikarioak egina da. Dena den, 1912. urte aldera R.M. Azkuek jaso zion Tomas Arribillaga "kesero"ri zahagi dantzaren musikaren partitura.

Honelatsu dioen letra ere kantatzen dute goizuetar askok: *"ni ez naiz moztarroa izanagatik lau begi, atoz atoz honara, ez zaitez joan ihesi"*.






Zezenak festatan

Herriko adineko jendeak esan izan duenez beti ezagutu izan dituzte zezenak festatan. Aspaldidanik datorren kontua da beraz. 1705ekoa da aurkitutako aipamenik zaharrena, orduko errotariaren egitekoa zen, besteak beste *"Amabirjinetan hesiak jarri eta kendu zezenetarako"*, eta horrela jasoa dago dokumentu batean. Artxiboetan jasotako 1900eko urriaren 8ko beste agiri batean Amabirjinetarako udaleko diru kontuetan honakoa azaltzen da: *"Festetarako 3 zezen 150 pezeta. Hilaren 16an eta 17an 3 kanpotarrek zezenak toreatzea 50 pezeta. Hilaren 17an behi bat hiltzea 20 pezeta. 5 pezetan truke hiltegira eramatea bi zamariek arrastan hartuta, guztira 225 pezeta"*.

Beste agiri batek dioenez 1921ean *"ezkildorrean erloju berria jarri zuten. Eta bestetik, Don Fernando Carril medikuak, Peronen bizitutakoak, bi erraldoi eta buruandiak egin zituen Amabirjinetan ateratzeko"*.



Bertsolariak

Plazetan ibilitako lehendabiziko goizuetar bertsolaria Juan Bautista Altamira izan zen (Petrinea 1759). XX. mendean berriz, Euskal Herri guztian ezaguna egin zen Andres Nabarte "Xalto" dugu. Nafarroako zapela lortu zuen bi aldiz (1960 eta 1964an) eta beste bitan Euskal Herriko txapelketan finalista izen zen (1960 eta 1965ean). "Xalto"ren lekukoa Manolo Arozenak hartu zuen Nafarroako 4 txapel jarraian lortuz (1990etik 1993ra) eta Euskal Herriko 3 txapelketetan kantatuz (1997, 1999 eta 2001).

Aurreko mendean plazatan ibilitakoak dira Aiarrako Juanito, Karretoko Batista eta Joxe, eta baita Olasoko Estanis ere. Aipatutako hauetaz gain, amaiezina da bertsolaritzarekin lotura estua eduki duten goizuetarren zerrenda, bertsoak idatziz, zaharrak kantatuz eta transmitituz, bertso eskolan lan eginez edo ikasiz, edo tabernan eta otorduetan arituz herri bertsolari bezala.



Dantza taldea

1936ko gerra aurretik ere bazen dantza taldea Goizuetan. Errepublika garaian ikurrina erabili izan zuten agurra egiteko. Hutsarteak hutsarte, beti izan da dantza herrian. Gehienetan, orain bezala, Amabirjinetako saioa soilik eskaintzen zuten.

1980ko hamarkadaren bukaeran Umore Ona Elkartek bere baitan hartu zuen taldea eta 50 kideetik gora izan zituen sasoi horretan. Herrikanporako irteerei ere ekin zion

taldeak urte batzuetan. Adin guztietako 25 bat herritar daude gaur egun Umore Ona dantza taldean.

Abesbatza

2006an sortu zen Umore Ona abesbatza kultur taldearen ekimenez. 45 kide inguru zeuzkan koruak hasieran Igaratza Apezetxearen gidaritzapean. Nuria Colomerrek hartu zuen ondoren batuta eta Eneko Amondarain irundar gazteak zuzentzen du gaur egun 30 abeslarik osatzen duten taldea. Iruñean, Donostian, Bilbon edo Santanderren eta beste hainbat herritan kantatu du, besteak beste, Umore Onak 10 urteko ibilbidean. Eguberrietako kontzertua eta Amabirjinetako auroroak dira koruak herrian eskaintzen dituen emanaldi aipagarrienak.

Herriko musikariak, berbenak...

Urteetan iraun zuen Udal Musika Banda bazen Goizuetan XIX. mendearen bukaerarako. Datu horrekin lotuz esan behar da herri musika arrunt sustraitua egon dela azken urteotako historian, akordeoilari eta txistulariei dagokienez gehienbat. Tikitixak ere indar handia hartu zuen XX. mendearen bukaeratik aurrera. Herriko mugetatik kanpo oso ezaguna egin zen 60ko hamarkadan *Los Fifox* taldea, eta gero, *Naigi* berbena taldea. 90. hamarkada aldera *Xapo* taldeak ere inguruko herrietan asko jo zuen. Garaitu honetan sortutakoak dira *Kolokan*, *Deus*, ... taldeak ere. Asko suspertu zen ia hilda zegoen herriko musikagintza. Horretan eragina izan zuen Udal Musika Eskolaren sorrerak, bertan haur eta gazte asko trebatu delako musikan. Gaur egun herriko hainbat gazte ari da berbena edo bestelako musika taldeetan jotzen eta kantatzen. Aipatzekoa da, era berean, Kantu Txapelketetan goizuetarrek izan duten eta oraindik ere izaten duten presentzia.

Antzerki taldeak goizuetan

1960. urtean herriko apaiza zen Saturnino Mujikak sortu eta zuzendutako taldeak "*Uste diñat, ya lo creo!*" izenburuko antzerki obra estrenatu zuen. Ondoren Donezteben eman zuten beste emanaldi bat. Handik hilabete batzuetara Mujikak berak idatzitako "*Aberatsak olaxe egiten*" obra taularatu zuen talde berak. Inguruko herri askotara joan ziren obra honekin, baina emanaldi entzutetsuena Iruñako Gayarrekoa izan zen. Aretoa lepo betetzeaz gain, aipagarria da Iruñako Radio Popularrek zuzenean eskaini zuela emanaldia. 1964an desegin zen taldea. Urte horietan gainera, Saturnino Mujikak idatzitako eta gaur egun hain modan dauden bakarriketa laburrak eskaintzen ziren igandetan zinean pelikula hasi aurretik. Milagros Narbarte eta M^a Angeles San Miguel izaten ziren gehienetan antzezleak.





1990. urtean “Goizutarrak” taldea sortu zen “Goizutan bazen” obra estreinatuz. Ixak Etxeberriak idatzi zuen eta Mireia Gabilondo gipuzkoarrak zuzendu zuen taldea hasieran. 10 emanaldi inguru egin zituzten ondorengo hilabeteetan. Hernanin, Oretetan, Leitzan, Azpeitian eta Iruñean esate baterako. 2015ean, 25 urte bete zirela-eta, omenaldi xumea egin zion herriak antzerki taldeari, orduko partaideak eta taldeko kideak bilduz.

Kontrabandoa

1950-1960ko hamarkadan izan zen, batez ere, kontrabandoa Goizuetan. Herriko mutil gazte askok pasatzen zituzten horretan arratsak. Kide askoz osatutako hiru talde izan ziren garairik hoberenetan. Frantziako Estatutik bortziritarrak igarotako paketeak (35kg ingurukoak) jasotzen zituzten goizuetarrek. Genero ugari garraiatzen zuten pakete horietan: arropa, puntalak, kotxe eta motoen piezak... Batzuetan herri inguruan kamioietan kargatu eta gehienetan Madrilera eramaten ziren paketeak. Bestetan berriz, leku jakin batzuetan uzten ziren beste talde batzuetako kideek jasotzeko (berastegiarrek, esaterako). Herriko koarteleko Guardia Zibil batzuk “erosiak” izaten zituzten taldeetako arduradunek baina hala ere haiengatik ihes ezin eginez ibiltzen ziren askotan. Kamioikada osoak ere harrapatzen zituen poliziak Madrilera ailegatu eta gero ere, salaketaren erruz gehienetan. Frantziara poliziaren ihes egin beharra ere izan zuten goizuetar batzuk. Salaketa horien eraginez bukatu zen kontrabandoa.

Zinea

Goizuetan lehenengo zine emanaldia Cine Rocamora deritzonak eskaini zuen Herriko Etxeko ganbaran 1910ean. 1950ko hamarkadan berriz, panaderi zaharrean (gaur egun “Frantxetarrak” bizi diren etxean) proiektatzen ziren filmeak. 1959an zinema aretoa eraikitzeo proiektua prestatzen ari zela Udala, Eugenio Etxenike herriko apaizak Zentroa eta parroikia-zinea eraikitzeo proiektua aurkeztu zion Udalari dirulaguntza eskatuz. Honek, bere proiektua bertan behera utzi eta 100.000 pezetako subentzioa eman zion parrokiari. Handik hilabete batzuetara 400 eserlekuz osatutako aretoa inauguratu zen. Igande eta jai egun guztietan bi sesio eskaini zituen dozena bat urtez. 2013an bota zuen Udalak, erortzeaz zegoela, hain ederra izandako areto hura.

Umore Ona elkarte

Izen bereko Peñaren ekimenez sortu zen 1984ko abenduan Umore Ona Elkarte 100 bazkiderekin. Sortu zenetik atal ezberdinak hartu ditu bere baitan: dantza taldea, pilota, areto futbola, korua, herri kirolak,... Gainera urtean zehar beste hainbat ekintza antolatu edo babesten ditu. 250 bazkide inguru ditu gaur egun elkarteak.

Umore Ona peña

Iruñako Peñak San Ferminetan ibiltzen ziren erara ibili asmoz sortu zuten herriko hainbat gaztek Umore Ona Peña 1959an. Gaindegi etxean kokatu zuten egoitza. Koadrila bat izatetik herriko gazte gehienak bere baitan hartzeko saltoa eman zuen urte gutxitan. Bere egitekoan ere jauzi esanguratsua eman zuen, hasieran Amabirjinetarako ekintzak prestatzen zituzten eta gerora urte osoan zehar era guztietako ekitaldiak antolatzen hasi ziren: pilota edo mus txapelketak, kabalgata...

Peña sortu eta handik 25 urtera izen bereko elkarteak inauguratu zen, aurreko urte luzez peñakideek amestutako helburua lortuz. Bere sorreratik Amabirjinetako festetan egun propioa izan du peñak, "*Peñaren Eguna*", abuztuaren 18an ospatzen dena.

Gazte Asanblada

Aurten 25 urte bete ditu Gazte Asanbladak eta nabarmentzekoa da bere eragina herrian. Udaletxeko beheko solairua atondu eta bertan kokatu zuen egoitza lehenengo urtean. Garai bateko "zentrora" joan ziren gero bertako bi solairu erabiliz: goikoa gazteak elkartzeko eta behekoa kontzertuetarako. Ekintza ugari antolatu ditu Gazte Asanbladak bere ibilbide luzean, baina kontzertuek eman diote berari eta herriari, sonarik handiena. 90eko hamarkadan herria jendez gainezka betetzen zuten kontzertuak antolatu zituen, beste hainbat erakunderen laguntzarekin. Ikaragarria izan zen 20. urteurrena ospatzeko antolatu zuten egitaraua eta egin zuten lana, eta era berean, azpimarratzekoa, herri osoaren parte hartzea urteurrena zela-eta.

Goizueta hedabideetan

1970eko hamarkada arte oso bakana izaten zen Goizuetaren presentzia hedabideetan, nahiz kasu puntualik izaten zen: 1964an, esaterako, bi orriko erreportajea eskaini zion *Diario de Navarra*. 1970etik 1975era, eta Antton Berroetaren lanari esker, astero edo bi astetik behin hemengo berriei tartea eskaintzen zion *Diario de Navarra*. Aipagarria da bere aitak, Xeberinok, garaitsu horretan Nafarroako Diputazioak euskaraz argitaratzen zuten Principe de Viana aldizkarian idazten zuela.

Egin egunkaria 1987an hasi zen Nafarroan Zehar gehigarria argitaratzen, eta hor, Goizuetak txoko finkoa aurkitu zuen 1998an Madrilgo Gobernuak egunkaria itxi zuen arte. E. Arozenak sinatutako bizpau kronika argitaratzen zituen astero *Eginek*. 1988tik Goizuetak badu bere orria *Ttapi-Ttapa* hamabostekarian. L.F. Etxeberria hasieran, K.





Etxeberria ondoren eta gero 20 urte luzez E. Arozenak bete zuen berriemaile lana. Gaur egun, Donostiako edizioko *Diario Vasco* eta *Hernaniko Kronika* egunkariak dira Goizueta maiz aipatzen dutenak, F. Loiarteren argazkiekin albisteak osatuz. Goizuetaren izena asko azaldu da hedabideetan azkeneko 30 bat urte hauetan herrian sortutako kirolari ospetsuei esker, futbolariak eta pilotariak batez ere.

Suhiltzaileak

1996an sortu zen suhiltzaile boluntarioen taldea, Udala eta Nafarroako Gobernuaren elkarlanari esker. Deialdia egin zen eta 26 laguneko taldea osatu zen, tartean bi neska ere baziren. Altsasun 50 orduko formakuntza ikastaroa egin zuten. Adin guztietako herritarrez osatutako boluntario taldea antolatu zenean egoitza ederra eraiki zen, eta ibilgailuz eta gainerako tresnez ederki hornitu zuten. Gaur egun 34 pertsonak osatzen dute Goizuetako taldea. Nafarroan, suhiltzaile boluntarioz osatutako 7 parke daude: Goizuetan, Leitzan, Lesakan, Beran, Luzaiden, Izaban eta Agoitzen. Urteetan egindako lanaren errekonozimendua ere jaso dute Goizuetako suhiltzaile boluntarioek, Nafarroako Gobernuak saria eman baitzien 2013an.



Goizuetako armarrria

"Escudo de armas de la Villa de Goyzueta, estas son armas y blason e ynsignia de la Vª de Goyzueta. Naturales y originarios de ella" horrela dio armarrrian, irudiaren bueltan datorren gaztelerazko testuak. Bitxikeria moduan eta norbaitek armarrria Iruñean ikusi nahiko balu, jakin dezan Goizuetako armarrria Nafarroako Foru Monumentuaren egoitzan dagoela, Gaztelu Plaza aldera dagoen horman.

Goizuetako Udala

Goizuetak eta Aranok udal bakarra osatu zuten denbora askoan eta oso aspalditik. Bi herri ziren baina ikuspegi administratibotik elkarrekin agertu dira historian zehar. 1630. urtean Arano eta Goizueta banatu egin ziren, 2 udal izatera pasatuz, eta geroztik herri bakoitzak bere udal propioa du.



Goizuetako Udalaren osaera eta alkateak

Goizuetako Udala lau urtetik behin hautatzen da, eta 7 zinegotzik osatzen dute osoko bilkura. Gobernu batzorderik ez dauka, baina udala eta herria kudeatzeko lana

hainbat batzordetan banatzen da. Batzordeak Udala osatzen duten talde guztietako kideek osatzen dituzte. 2015eko udal hauteskundeak EH Bilduk irabazi zituen udaleko 7 zinegotziak eskuratuz. Azkeneko hauteskundeetan Unai Loiarte Ansa hautatu zuten alkate. Goizuetako Udalak izan dituen alkateei erreparatuz ibilbide luzeena Anttoniko Apezetxeak egin zuen, 20 urtez izan baitzen herriko alkate, 1959tik 1979ra. Urte hartan hauteskundeak izan ziren lehendabiziko aldiz, eta geroztik, Goizuetako Udala hauteskunde bidez hautatzen denetik, alkate izandakoak honakoak dira:

1979-1983 Jexux Mari Apezetxea

1983-1987 Luis I. Lujambio

1987- 1991 Juan R. Iribarren

1991-1995. Miel J. Lekuona

1995-2003 Pili Untxalo

2003-2007 Imanol Legarreta

2007-2011 Miel J. Lekuona

2011-2015 Pablo Miranda

2015-... Unai Loiarte

Goizuetako udaletxea

Lehenbiziko udaletxea Azoka etxean egon zen (Umore Ona Elkartea dagoen etxean). Ondoren pasa zen gaur egun ezagutzen dugun Herriko Etxera. Oraingo eraikin hau XVIII. mendeko eraikin ederra dugu, 1762an Herriko Etxe berria eraikitzeko beharra ikusita sortutakoa da. XVIII. mendeko etxe handi hau urdin kolore nabarmeneko harriarekin egindakoa da. 1768an hasi ziren lanak eta 1771n bukatu zuten udaletxe berria. Handik mende batera ezbehar batek udaletxe osoa suntsitu zuen barrendik. 1864ko otsailaren 2an gaueko 23:00ak aldera sute ikaragarria gertatu zen Herriko Etxean. Herritarren saiakerek ez zuten sua itzaltzea lortu eta lau paretak bakarrik gelditu ziren zutik. Hala ere herriko artxiboa salbatzea lortu zuten, bigarren solairutik artxiboko eta notaritzako paper eta liburu gehienak plazara bota zituztelako. Hirugarren solairuan jasota zeukaten artoa bertan erre zen, baita azindak bazkatzeko jasotako belar lehorra ere. Orapean zegoen herriko kartzela ere erre zen, gizonezkoentzat izaten zen bat eta emakumeentzak bestea. Udalaren, herritarren eta hainbat jauntxoen artean 30.000 erreale bildu zituzten etxea berriz eraiki ahal izateko. Aurrekontua 86.000 errealekoa zenez gainerako 56.000ak eskatuz gutuna idatzi zon Udalbatzak erreginari.

Udaletxearen azkeneko zaharberritze obra hiru fasetan egin ondoren 2002ko otsailaren 23an inauguratu zen.





KIROLA

Goizueta herri kirolaria da, zalantzarik gabe. 3 frontoi izan dituen herria da. Baina frontoiak eraiki aurretik plazan jokatzan zen pilotan, Urrutinea etxeko paretan hain zuzen ere. 1896an Goizuetako Udalak, Urrutinea etxeko pareta errentan hartzeko akordioa hartu zuen eta hala Udalak 30 pezeta ordaindu zizkion Antonio Salaberriari. 1908an herritarrek eskaera bat egin zioten udalari, aurrekontuetan diru partida bat aurreikus zezan pilota-plaza eraikitzeko eskatuz. Kontatzen dutenez, 2 herritar ika-mika zebiltzan erreka alde banatan pilota-plaza bana eraikitzea nahi zutelako, bakoitzak bere etxeko leihotik partiduak ikusi ahal izateko. Kontuak kontu, azkenean, 1911n 2 pilota-plaza eraiki ziren herrian.

Herriak hainbeste jokatzeko-leku zituen gazteek bazuten non entrenatua. Kirol ezberdinetan trebatu dira goizuetarrak eta profesional handiak eman ditu kirolak.

Pilota



Pilotak ospe handia eman dio herriari. Pilotari on askoak eman ditu Goizuetak. Herriko pilotariak makina bat txapelketa irabazi izan dituzte: Munduko Txapeldunak dira Jantxo Apezetxea (urrezko domina lortu zuen) eta Iñaki Lujanbio, azken hau 1992ko Joku Olinpikoetan ere Txapelduna izan zen. 1980, 1983, 1986, 1990, 1991 eta 1992ko Herri Arteko Pilota Txapelketak irabazi zituen Goizuetak. Hainbat herritar iritsi dira pilotari profesional izatera: Iñaki Lujanbio, Jose Julian Salaberria, Agustin Loiarde, Jon Apezetxea eta Asier eta Aimar Olaizola. Pilota munduan hizki handiz idatzi du bere izena Aimarrek. 19 aldiz izan da Txapeldun, lau t'erdian, buruz-buru eta binaka; eta bere anaia Asierrek binakako 2 Txapelketa irabazi ditu profesionaletan aritutako 17 urtetan.

Herremintak ere badu ordezkari goizuetarrik: Miel Salaberria erremontean aritu zen eta gaur egun Aritz Zubiri dabil. Esku-pilotan hasi eta 15 urte eman bazituen ere erremonterako saltoa eman zuen. Promozio mailako 2 txapel irabazi ditu. Pilotarien atala osatzeko Umore Ona pilota eskola aipatu behar da, urtetako lanari esker gazte asko trebatu delako bertan. Gaur egun 13 ikasle ari dira esku-pilotan Angel Salaberria entrenatzailearekin.

Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Pilota Federazioak, pilotaren ibilbideak sortu zituzten 2010ean, 3. ibilbideko parte da Goizueta, Eratsun eta Leitzarekin batera.

Futbola



Pilotariak bezain ospetsuak izan dira goizuetako futbolariak. Aipagarria da Yandeneko etxetik sortu zen futbolari sorta, Bakerotarren 11 senidetik 8 futboleko aritutakoak baitira. Garaipenei begira Joxe Marik, Ixiarrek eta Ainhoa lortu dituzte titulurik gehien. Oihartzun handiena Joxe Marik lortu du, 17 txapelketa handi irabaziz Real Sociedad eta

Barcelona FC taldeekin, besteak beste: Liga, Kopa, Errekopa eta Europako Kopa. Ixiarrek eta Ainhoak Añorga taldearekin, Gipuzkoako, Euskadiko eta Espainiako selekzioarekin ere kopa eta liga mordoa eskuratu dituzte.

Joxe Manuel Etxeberria Osasunako jokalaria izan zen. 10 urtez aritu zen futbolekin, Osasuna taldean bertan erretiratu zen arte.

Areto futbolak ere izan zuen presentzia. FUTBOL 7 UMORE ONA taldea sortu zen 1978 urte inguruan, Hernaniko futbol 7ko txapelketara aurkezteko. 1990. hamarkadan Gipuzkoako bigarren mailara igotzea lortu zuten.

Atletismoa

Arantxa Bakero distantzia laburreko lasterkaria izan zen, hainbat txapelketa irabazi zituen eta 1988an 200mko Gipuzkoako errekorra lortu zuen. Marka hori bere esku izan zuen 17 urtez. Amaia Lujanbio berriz, iraupen-lasteketetan aritutakoa da, hainbat domina eskuratuz. 1500 metroan Nafarroako txapeldunaren titulua du bere gain.

Sokatira

ARZURI izeneko sokatira taldea ere izan zen herrian, 1993an hasi eta 3 urte iraun zuen proiektu hark. 600 eta 650 kilotan egiten zituzten tiradak. 1994ko Nafarroko Txapeldunak izan ziren 2.mailako 600 kilotan.

Trontzalariak

Goizuetan trontzalariak ere izanak ditugu, besteak beste, aipamen berezia merezi dute Txakurtxo baserriko Jose Antonio eta Juan Perurenak. 1942tik 1949ra hainbat erakusketa eta apustutan parte hartu zuten, eta maiz irabazle izan ziren gainera. Ospe handia lortu zuten Tolosako plazan 1942ko abenduaren 20an Urnietako Mariano eta Nicolas Lasarteren kontra egindako apustua irabaztean. Kana-erdiko enberrari 12 korte eman behar zizkien.





PERTSONAIK HERRITARRAK



GURE HIZKUNTZA

Zerbait esan nahi nuke
nere gogotikan
gure hizkera gaixo
honengatikan;
hauxe ikasi gendun
txikiagandikan,
orduan ez genduan
bera besterikan,
ezta hizkuntzikan
honelakorikan;
hemen dagonikan
hau bezin onikan,
ez utzi galdutzea
Euskerarikan,
ez utzi galdutzea
Euskerarikan.

Andres Narbarte "XALTO"

1927ko azaroaren 20an jaio zen Goizuetan, nekazaria zen lanbidez. Soldaduska Afrikan egitea suertatu zitzaion, eta Lazkao Txikirekin bat egin zuen han. Bertsolari klasikoa eta eskola gabea. Nafarroako txapeldun izan zen 1960 eta 1964an, 1961, 1962, 1963, 1966an Nafarroako txapelketan finalista, 1960 eta 1965ean EH txapelketan finalista. 1971ko urtarrilaren 9an mendian sasi-larreak erretzen ari zela suak indarra hartu eta horren ondorioz hil zen. 1960ko Txapelketa Nagusian gertatutakoa ezagun egin zen. Egun haietan Fabiola espainiarra Belgikako errege Balduinorekin ezkondu zen, puntu horixe jarri zion Alfonso gai-jartzaileak, baina Xaltok ez zekien Fabiola zein zen.

Xalto sariketa: Nafarroako Bertsozale Elkarteak eta Goizuetako Udalak bi urtetik behin antolatzen duten txapelketak helburu nagusi bat du, bertsolari gazteei plazan aritzeko aukera ematea. Txapelketak lehen pausuak 1992an eman zituenetik, goi mailako bertsolariak igo dira Goizuetako oholtza gainera: Julio Soto, Estitxu Arozena, Xabier Silveira, Oskar Estanga eta Aimar Karrika besteak beste. 1998ko Xalto Saria Amets Arzallus, egungo Txapelketa Nagusiko txapeldunak irabazi zuen, 15 urte zituela.

Trabuko

"Goizuetan bada gizon bat deitzen zaio Trabuko ..." horrela hasten dira Resurreccion Maria De Azkue-k (1864-1951) jaso zituen bertsoak eta Mikel Laboaren ahotsean ezagun egin direnak. 1747an eraman zuten Iruñako kartzelara Berdabio deituriko Joseph De Etchagaray. Bertsoek Goizueta, Leitza, Oiartzun eta inguruko herrietan lapur eta gaizkile talde batek XVIII.mendean egindakoak kontatzen ditu.

Berdaio lapurreta eta txanponak faltsutzeagatik kartzelaratu zuten. Egunean bertso bat idazten omen zuen espetxean. Trabuko, gaizkile talde berdineko kidea zen eta Berdaio salatu zuena izan zen. Azken honek, ordainetan, idatzi zituen bertsoak, tartean Elaman burututako hilketa kontatuz.

Fermin Antonio de Apecechea y Alarcon

Goizuetan jaioa 1755ko uztailaren 25ean, Jerez de la Fronteran zendu zen 1834ko ekainaren 17an. 22 urterekin Ameriketara emigratu eta Zacatecasera (México) joan zen bizitzera. 1782an Juana Floresekin, Panuco-ko korregidorearen alabarekin ezkondu eta sei seme-alaba izan zituen. Meatzaritzako industrian fortuna egin zuen, 1790ean herriko alkate eta 1813an Cadizeko Gorteetako Diputadua ere izan zen Zacatecas errepresentatuz.

Independentzia gerran segika izan zituelako Espainiako Jerez herrian jarri zen bizitzen eta lagun zahar batekin bodega negoziotan hasi zen, berriz ere zorte handia izanez. Donazio asko egin zituen tartean Goizuetan eskola egiteko eta elizako organista ordaintzeko. Egindakoa eskertzeko kale bateri bere izena jarri zioten. Donazio hauei esker hainbat ohore eskuratu zituen: Armadako Intendente izendatu zuten eta Isabel Katolikoaren Gurutzea eman zioten. Kolera gaixotasunez hil zen 79 urterekin.

Don Bixente

Lekunberrin jaioa, Goizuetako bikario izan zen 22 urtez (1970-1992) Don Esteban Irurtzunekin batera. Herriko kultura eta historiari buruzko hainbat ikerketa eta lan ezberdin egin zituen, aipatzekoak, 1978an *"Goizuetako etxe eta baserrien izenak: 1616 urtetik- 1925ño"*. Liburuxka honetan jaso zituen etxe eta baserrien inguruko hainbat datu. Goizuetan -Arano mapa egiten ere parte hartu zuen. Euskaltzalea, eskolan erdara derrigorrezkoa zen garaian Kili-kili aldizkariarekin euskara bultzatu zuen. Euskal dantzak herriko gazteei erakusten eta baita monumentu megalitikoak seinalizatzen ere aritu zen Aranzadi Elkartearekin. Orreagan pasa zituen azken urteak.

Dionisio Txoperena

Dio, ezizenez, Goizuetan jaioa 1954ko azaroaren 17an eta Kalifornian hil zen 2006ko irailaren 12an. 17 urterekin Estatu Batuetara joan zen artzain lanetara, beste hainbat euskaldun bezala. Dionisiorekin batera beste 4 anaia ere Kaliforniara joan ziren bizitzera. AEBetako telefonia mugikorreko iragarki kanpaina batean parte hartzeagatik egin zen ospetsu. Estatu Batuetara emigratu zuten euskal artzainen sinbolo ere bihurtu zen.

Goizuetako "amerikanoak"

XIX. mendean kezka larria bizi zen mendialdeko herrietan, gerra Karlistak eta kolera gaitzak egoera tamalgarrian utzi zuten gure herrialdea. Honen ondorioz jende ugari erbestera joan zen baita Goizuetatik ere. 21-22 urteko gazteak ziren gehienak, gerratik eta soldaduskatik ihesi alde egindakoak, desertore deitzen zieten. Baina ez ziren denak gerra kontuagatik joanak, ordurako lan-ekasiaz ere nabaria zen eta etorkizun hobeago baten bila abiatu ziren hainbat herritar Ameriketara. Gehiengo bat artzain lanetan aritu zen. Honela jasotzen du 1868ko dokumentu batek: *"Sasoirik onenean doaz mutilak, ezkontzak ospatzeko hutsune ikaragarria utziz. Gazteak emigratzen hasi zirenetik, hemen geratu diren mutilak hezur ta azal eginak daudenak dira, ahulak eta zahartuak ... Mutilak emigratuz gero, naturala da neskak ere atzetik joatea, ordurako eginak zituzten*





harremanak zirela-eta, edo bertan geldituz gero ezkontzeko itxaropenik ikusten ez zutelako, eta emakume batek ezkontzea zuen beti helburu”.

Joaregileak

1940 inguruan Bixente Apezetxea Untxalo, Danbolinborda baserrian hasi zen joareak egiten. Ondoren bere semeek Jose Antonio eta Juanitok jarraitu zuten. Gaur egun hirugarren belaunaldiak segitzen du ofizioarekin, Jexuxmari Apezetxeak egiten ditu Goizuetan, eta Juanito eta bere semeek Lekunberrin.

Tamaina eta forma desberdineko joareak daude: kalaskak, dunbak, borobilak, zinzerriak, txintxak. Ardi, behi, behor, ahuntz edo zerri, baita ehizeko zakurrentzat erabiltzen direnak ere. Langintza honetan diharduten artisau bakarrenetakoak dira Apezetxeatarrak.

Atsolarra

Euskal Herriko baserri giroan errotutako ohitura zaharra da eta emakumeen auzolana da bere esanahia. Baina bereziki haur bat jaiotzen zenean egiten zitzaion ongietorrian oinarritzen da usadioa. Familian edo auzoan haur bat jaiotzean festa egiten zen jaioberriari ongietorria emateko, berendu goxo bat eginez: oiloa hiltzeko ohitura zegoen salda egiteko, edo txokolatea ere prestatzen zuten, elkarrekin arratsalde-pasa ederra gozatuz. Auzolanean, festa giroan, han ziren emakumeek konpromisoa adierazten zioten amari laguntza emango ziotela umea aurrera ateratzen, nerabazarora arte.

Ezponda

XIX. mendean gertatutako istorioa da. Illarsoroko mugarritik oso hurbil Ezpondako Zuloa dago, garai batean burdina ateratzeko gunea izandakoa. Kondairak dioenez, han dago Peroenean jaiotako Ezponda goizuetarraren arima. Zaldi zuri batean ibiltzen omen zen gizon aberats eta gaizto hau, eta herritar guztiak haren beldur izaten ziren. Hil ondoren, dirudienez, hodei beltz beldurgarri baten gainean agertzen omen zen, zaldi gainean igota. Apezak exorzismoa egin behar izan zuen. Gurutzearen laguntzaz hodeia urrutiko zulo hartara eraman zuen, eta bertatik ez ateratzera zigortu zuen hainbat urtetarako, anega laurdenak dituen liho-hazi adina urterako hain zuzen ere. Trumoiak jotzen duenen herriko zaharrenak oraindik ere esaten dute: *“Ezponda maittu duk oain ere”*.

Kondaira honen lekukoa Juan Garmendia Larrañaga etnologo eta historialari ezagunak jaso zuen, *Beti ortodoxoak ez diren konjuruak IV* izeneko artikuluan.



GEHIAGO JAKITEKO

Aldizkari honetan hainbat kontu aipatu ditugu, Goizuetari buruz jakin daitekeenaren zatitxo bat denon eskura jartzeko. Irakurlearen jakin-mina neurri txiki batean asetzea eta neurri handi batean piztea da gure helburua.

Jakin badakigu hemen bildu eta eskaintzen duguna askoz gehiago sakondu daitekeela. Horretarako zehatzagoak diren iturri batzuk aipatuko ditugu, lagungarri izanen zaizkizuelakoan. Horietan bertan informazio-iturri gehiago, bibliografia zabalagoa eta ezagutzen sakontzeko bide berriak eta oparoak aurkitu daitezke.

- Xapo aldizkaria. Zenbaki guztiak Interneten ikus eta deskarga daitezke, www.iparmank.eus
- webgunean.
- Goizuetako Udalaren webgunea: www.goizueta.eus
- Urumea Arnasturen webgunea: www.urumeaarnastu.com
- Euskara Mankomunitatearen webgunea: www.iparmank.eus
- Añamendi entziklopedia: www.euskomedia.org/aunamendi
- Ttipi-ttapa aldizkaria: www.erran.eus
- Goizuetako etxeen izenak. Patziku Perurena, Patxi Salaberri eta Juan Jose Zubirik idatzitako liburua.
- Goizueta eta Aranoko hizkerak Juan Jose Zubiri eta Patziku Perurenak idatzitako liburua.
- Juan Garmendia Larrañagak idatzitako artikulua *Beti ortodoxoak ez diren konjuruak IV*
- Zurgaia aldizkaria
- Nafarroako Estatistika Institutua
- Udalaren artxibategia
- Elizaren artxibategia
- Tolosako artxibategia
- Leitzako Liburutegiko bibliografia: liburuak, entziklopediak, urtekariak eta prentsa bildumak, aldizkariak...
- Joxe Jabier Etxeberria, Mari Pilar Untxalo, Jose Antonio Apezetxea *"Txamo"* eta Ezkurrako Fernando Etxeberria



